Espediente zk.: 2024TUR003

Xedea: Tolosaldeko Turismo Jasangarriaren Planaren baitan zerbitzu eta hornidurak egiteko kontratua: 4. ardatzaren (Lehiakortasuna) 1. (Turismo kulturalaren eskaintza sortu eta hobetzea) eta 4. (Bertako produktuak turistari begira balioan jartzea) jarduketak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU).

1. lotea: Kutsidazu bidea, Ixabel ibilbidearen seinaleztapena, ekipamendua eta komunikazioa, Hernialde eta Alkizaren artean

Objeto: Contrato de servicios y suministros integrados en el PSTD de Tolosaldea: actuaciones 1 (Creación y mejora de la oferta turística cultural) y 4 (Puesta en valor de los productos locales para el turista) del Eje 4 (Competitividad) en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia - Financiado por la Unión Europea – NextGenerationEU.

Lote 1: Señalización, equipamiento y comunicación del recorrido Kutsidazu bidea, Ixabel, entre Hernialde y Alkiza

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

Antecedentes y objetivo

El Plan de Marketing de Tolosaldea, aprobado por el Consejo de Administración de Tolosaldea Garatzen S.A. en noviembre de 2021, fue la base para estructurar el Plan de Turismo Sostenible de Tolosaldea.

En él se definieron 10 objetivos estratégicos, siendo uno de ellos “Poner en valor la Cultura y la identidad vasca y fomentar el conocimiento y el respeto a la misma en los visitantes”.

En el eje de competitividad se incluyó la línea de trabajo para crear nueva oferta turística. En concreto, se propuso la siguiente acción para dar respuesta al objetivo estratégico anterior:

- Creación de nuevos productos sobre la vida rural y la identidad vasca y adaptación de los existentes a los diferentes públicos objetivo: Kutsidazu bidea Ixabel (Hernialde-Alkiza).

La novela "Kutsidazu bidea Ixabel" es una novela de humor publicada en 1994 por Joxean Sagastizabal, que posteriormente ha sido llevada al teatro, al musical y a la película.

HISTORIA: en la novela, un joven donostiarra se dirige a un caserío de Tolosaldea para mejorar el euskera aprendido en el euskaltegi. Ixabel es hija del caserío. En clave humorística relata sus problemas en un mundo totalmente desconocido: con el euskera "auténtico" (como para él es incompresible, lo llama "swahili"), con las obras del caserío y con las cuestiones amorosas hacia Isabel.

Desde 1976 hasta 2017 ha habido en Alkiza internados para aprender euskera, concretamente en el albergue situado en el casco urbano.

Intervención en el marco del Plan de Turismo Sostenible de Tolosaldea

La novela "Kutsidazu bidea, Ixabel" y las posteriores películas y obras de teatro, cuentan la experiencia de una persona que va al campo a aprender euskera. Al menos en parte, la película se grabó en el camino entre Hernialde y Alkiza. Este mismo camino es el que se pretende utilizar ahora para contar la historia y fomentar de forma transversal la vida rural y el conocimiento y respeto por el euskera en los visitantes. Historia de éxito en las faldas del espacio natural protegido de Hernio-Gazume; siendo un recorrido sencillo, se prevé que tenga un gran atractivo. Estos municipios se encuentran bajo la ZEC Hernio-Gazume y se pretende poner en valor el euskera y la vida rural.

Proyecto Kutsidazu Bidea, Ixabel

Se trata de un recorrido que discurrirá por el camino público que une los municipios de Hernialde y Alkiza que posibilite la puesta en valor de este recorrido que une ambos municipios. En el documento anexo se pueden encontrar el **Plano y características de la vía.**

Características generales:

En el ámbito municipal de Alkiza se ha decidido proponer un itinerario circular, por un lado se propone el itinerario original pero se quiere ofrecer una alternativa para el que quiera recorrer los menos metros posibles de la carretera.

- Desnivel: 125 m.

- Longitud: 7 km de ida y vuelta circular.

Los recorridos se situarán en los puntos principales de ambos municipios, en la plaza de Hernialde y en el aparcamiento del cementerio de Alkiza. Allí se instalarán unos llamativos paneles informativos del inicio del recorrido, con los detalles de los mismos.

Para la creación de paneles y señalética, además de tener en cuenta los elementos existentes en el entorno, se tomará como base la guía Tolosaldea Marka.

En documento anexo se presenta la Guía de estilo de la marca turística de Tolosaldea que habrá de emplearse por parte de la empresa adjudicataria.

A quién va dirigido

El recorrido será sencillo y entretenido, especialmente ideal para hacer con niños y se sumará a la estrategia de promoción del turismo familiar compartida con Basquetour, la Agencia Vasca del Turismo.

Descripción de la intervención

La intervención se basará en la señalización, equipamiento y comunicación del recorrido Kutsidazu bidea, Ixabel:

Acciones concretas a desarrollar por la empresa contratista:

1. Paneles de inicio

Plaza de Hernialde y en el ámbito del cementerio de Alkiza. Los textos de los paneles se colocarán en cinco idiomas, dando prioridad al euskera (euskera, castellano, francés, inglés y catalán).

Se mostrará el desnivel, longitud y tiempo del recorrido, acompañado de un mapa general y una descripción, así como explicaciones e imágenes de los puntos significativos del recorrido.

2. Señales de dirección

Las flechas deberán aclarar, al menos, el sentido de la ruta, el tiempo que tarden en llegar desde el punto en el que están y se identificarán con el nombre del recorrido. Ya sea una señal de cruce o de seguimiento; se pueden hacer diferentes propuestas.

3. Elementos que harán referencia a la novela

En los elementos más llamativos del recorrido, con la excusa de hacer un descanso, se hará referencia a la novela y se crearán espacios de descanso, juego o interpretación. Se propondrán al menos 4 estaciones, dos en el área de Hernialde y otras dos en el área de Alkiza.

4. Grabar el track del recorrido, describir y fotografiar la ruta

Con el objetivo de subir a la cuenta de wikiloc que tiene el departamento de Turismo de Tolosaldea Garatzen, se recogerá el track del recorrido, destacando los elementos más interesantes como waypoint, se harán fotografías y textos descriptivos en cinco idiomas: Euskera, castellano, inglés, francés y catalán.

Plazo de ejecución

Se prevé un plazo máximo de ejecución de los trabajos definidos de 4 meses.

ANEXO I

Planoa

ANEXO II

Markaren erabilerarako gidaliburua



D 573.000 E 574.000

Markaren
erabilerarako
gidaliburua

www.tolosaldea.*eus*

TOLOSALDEA

Sistema bisuala eta oinarrizko elementuak



Anitza bezain aberatsa da Tolosaldea. Bada nora joan, zer dasta, zer ezagutu. Baita zer bizi ere. Natura, gastronomia eta kultura dira nagusi; eta sustraiek nola, guztiek dute lurra jatorri.

AURKIBIDEA

Posizionamendua *4*
Logotipoa *10*
Kolore gama *18*
Tipografia *22*
Argazki lengoaia *26*
Beste markekin elkarbizitza *30*

POSIZIONAMENDUA

01.

POSIZIONAMENDUA

Kalitatezko alternatiba Euskadiren bihotza osatzen duen ingurune natural aberats eta babestuan, non txikiek eta helduek benetako esperientzia egokitua, bereizlea eta kalitatezkoa bizi dezaketen, beren gastronomiaren eta euskal kulturaren elementu esklusibo eta berezienez lasaitasunez gozatuz, eta euskal kultura eta landa-bizitza bertatik bertara ezagutuz.









MARKA VS. LOGOTIPOA

Gure marka logotipo bat baino haratago doa. Esperientzia koherente eta sendo baten irudia da, gure proiektuaren nortasuna eta balioak modu zuzen batean proiektatuko dituena.



Claim-a

Claim-a marka baten balioak eta ezaugarriak transmititzea lortzen duen mezua edo esaldia da. Gure markaren kasuan, komunikazio bisuala zuzenduko duten claim orokor batzuk zehaztu dira, hizkuntza ezberdinetara egokitutako bertsioak izango dituena.

Claim orokor hauek eduki arren, kanpaina bakoitzari lotutako slogan-ak ere erabiltzeko aukera izango dugu, komunikaziorako errekurtso moduan erabiltzeko.

Oharra:

• Claim hauetan, esaldiko hitz garrantzitsuenak kurtsiban idatziko ditugu, mezuari indarra emateko.

eus.

Gastronomia,
natura eta kultura,
dena *lurrari lotua*

cas.

Nuestra tierra,
tal y como es

eng.

The *authentic*
Basque experience

cat.

L'autèntica
essència Basca

fra.

L'authentique
expérience Basque

MARKAREN ATRIBUTUAK

Atributuak edo ezaugarriak, gure markak hartzailearen begietan izango dituen ezaugarri nagusienak dira.

Zeintzuk izango dira atributu hauek?

benetakoa, tradizioei lotua, zintzoa, kalitatezkoa, jasangarria, gertukoa, euskalduna, naturala, iraunkorra, landa-(eremu)koa.

MARKAREN BALOREAK

Baloreek gure marka esanahiez betetzen dute: gure izaera eta gauzak egiteko modua komunikatzen dute. Azken finean, gure nortasuna eraikitzen laguntzen dute.

Komeni da hauek kontuan izatea, gure komunikazioaren tonu orokorra definituko dute eta.

ERRESPETUA INGURUMENARI

*

BENETAKOTASUNA

*

BIKAINTASUNA

LOGOTIPOA

02.

LOGOTIPOA

Logotipoa gure markaren aktibo baliotsua da. Denon ardura da ondo zaindu eta merezi duen tratua ematea.

Gure markari presentzia izaten laguntzeaz gain, publikoak begirada huts batean identifika dezan lagunduko digu, edozein aplikazio edo oinarritan dagoela ere.

TOLOSALDEA

LOGOTIPOA.
BERTSIO TRINKOA

Logotipoaren bertsio trinkoa, bera aplikatzeko oinarriaren espazioa karratuagoa denean erabiliko dugu. Bertsio trinko honek logotipoa oinarri eta forma ezberdinetara modu hobego batean egokitzea erraztuko du, irakurgarritasuna ere hobetuz.

TOLO
SALDEA

ISOTIPOA

Gure logotipo nagusiaren bertsio "laburtua" da. Bertsio honetan testua ezabatu da, beraz, ia sinbolo moduan funtzionatzen du.

Isotipo honek lurra edo landa-eremua sinbolizatzen du, eskualdearen ardatz diren gastronomia, natura eta kultura beraien artean lotzen dituen elementu bezala.

Noiz erabiliko dugu?
Profileko irudi bezala, sare sozialetan, "Tolosaldea" iadanik idatzita doan oinarrietan, logotipoa oso tamaina txikian aplikatu behar denean (eta ondorioz textua irakurriko ez denean), etab.

LOGOTIPOAREN BERTSIOEN ERABILERAK

Erabiliko dugun logotipoaren bertsioa, erabilgarri izango dugun espazioaren arabera aukeratuko dugu askotan. Jarraian zehazten den bezala moldatuko da logoa, oinarriaren espazio librea txikitzen den heinean.

TOLOSALDEA

TOLO
SALDEA

ERABILERA ARAUAK

Babes eremua

Segurtasuneko babes eremu honek "X/2" distantziako tartea izan behar du gutxienez gainontzeko elementuekin, irudian ikusi daitekeen bezala.

Espazio honetan ezingo da inolako elementurik sartu, ez testu, ez irudirik. Arau berdina aplikatu da logotipo horizantala eta isotipoarekin ere.

Neurri honekin gure logoak "arnasa hartu" eta doan oinarrian behar bezala agertuko dela bermatuko dugu.



Gutxieneko murrizketa

Logotipoa ondo irakurriko den tamaina minimoa bermatzen du, eta beti bere zabalerak markatuko du. Logoaren arabera (nagusia edo trinkoa), tamaina bat edo beste aplikatu dugu.

Tamaina hau baino txikiagoa behar badugu, isotipoa ekarriko dugu.

TOLOSALDEA

20 mm

TOLO
SALDEA

13 mm

Erabilera okerrak

Beharrezkoa da logotipoa erabiltzerakoan zenbait arau errespetatzea, markaren koherentzia mantendu eta denborarekin bere eragina txikitu ez dadin.



Ez desitxuratu logotipoa:
ez zabaldu, eta ez zapaldu!



Ez aldatu koloreak,
eta ez aplikatu efekturik.

Ez aldatu orientazioa.



Ez aldatu edo kendu logotipoa
osatzen duten elementurik.

LOGOTIPOAREN BERTSIO KROMATIKOAK

Logotipoa aplikatzeko orduan, kolore gamako bi berdeak, marroia eta horia erabiliko ditugu, *beige* koloaren gainean posible bada.

Fondoan zuria ere erabil dezakegun arren, lehentasuna emango diogu *beige* koloreari.







KOLORE GAMA

03.

KOLORE GAMA

Erabiltzen ditugun koloreek gure nortasuna adierazteaz gain, hartzaileari gu ezagutzea errazten dio. Gure kolore paletak bertakotasuna, benetakotasuna eta naturaltasuna transmititzen du.

Gure logotipoetan, esaldi eta testuetan, koloretako oinarrietan, markaren aplikazioetan eta posible den oinarri guztietan erabiliko ditugu kolore hauek.


Pantone 357 C
RGB:
2 / 63 / 30
CMYK:
92 / 46 / 95 / 57
HEX:
#023f1e

Pantone 4635 C
RGB:
147 / 96 / 55
CMYK:
31 / 58 / 78 / 29
HEX:
#936037

Pantone 7527 C
RGB:
249 / 242 / 226
CMYK:
3 / 5 / 14 / 0
HEX:
#f9f2e2

Pantone 121 C
RGB:
251 / 215 / 87
CMYK:
3 / 14 / 74 / 0
HEX:
#fbd757

Pantone 7730 C
RGB:
69 / 147 / 97
CMYK:
74 / 20 / 73 / 4
HEX:
#459361



LOGOTIPOAREN BESTE BERTSIOAK

Logotipoa aplikatzeko garaian, posible da oinarri batzuetan koloreak erabiltzeko oztopoak izatea. Kasu hauetarako, zuribeltzeko bertsioa eta bertsio negatiboa erabiliko ditugu.





BESTE ERABILERAK

Koloretako bertsio hauek *beige* koloreko fondoen gainean erabiltzea lehenesten den arren, posible da kolore gamako bi tono ezberdin erabiltzea, oinarriak hala eskatzen badu.

Bi dira errespetatu beharreko arauak:

• Logotipoaren irakurgarritasuna bilatzea, kontraste handia duten bi kolore tono konbinatuz.

• Beti 2 kolore ezberdin erabiltzea, eta ez gehiago.









TIPOGRAFIA

04.

TIPOGRAFIA KORPORATIBOAK

Komunikazio bisualean, erabiltzen ditugun tipografia eta testu motek gure mezuen tonua definitzen laguntzen dute. Tolosaldeko marka turistikoaren komunikazio bisualean, tipografia familia ezberdinak erabiliko ditugu.

Zeintzuk dira, eta noiz erabiliko ditugu, orduan?

Aa

HAMBURG HAND BOLD

Noiz erabiliko dugu?

Titulu eta testu nabarmenduetarako, seinaletikan (espazio ezberdinen izenetarako) erabiliko dugu.

Tipografia berezia da, nortasun eta presentzia handikoa, beraz, komeni da bere erabilera aurrez aipatutako esparruetara mugatzea.

Oharra:

• Beti maiuskuletan erabiliko dugu, eta **Bold** pisuan.

Aa

Larken

Noiz erabiliko dugu?

Testu idatzi eta dokumentuetan erabiliko dugu tipografia familia hau, posible den eta oinarriak onartzen duen guztietan: web orrian, flyerretan, aurkezpenetan, dokumentuetan, etab.

Oharra:

• Komunikazio kanpainetan erabiliko diren claim eta slogan-etarako, beti Larken tipografia erabiliko dugu, kurtsibarekin konbinatuz.

Aa

Verdana

Noiz erabiliko dugu?

Testu idatzi eta dokumentuetan erabiliko dugu tipografia familia hau, gure tipografia korporatibo nagusia (Larken) erabili ezin dugunean: posta elektronikoan, word dokumentuetan, barne-erabilerako dokumentuetan, etab.

Hamburg Hand Bold

Eskuz marraztutako tipografietan oinarrituta dago, eta ondorioz trazu irregularrez osatua dago. Findutako ertz eta kurbak ditu, irakurgarritasuna errazteko.

Tipografia honen erabilerakin, benetakotasuna transmititu nahi izan dugu eta eskuz egina dagoen kutsua transmititu nahi dira: jatorria, iraunkortasuna eta gertutasuna.

ABCDEFGHIJ
KLMNOPQR
STUVWXYZ
123456789
&!?/\+=_-:;()

LOREM IPSUM DOLOR SIT AMET, CONSECTETUR ADIPISCING ELIT. ETIAM DIAM EROS, BIBENDUM ET IACULIS VEL, FACILISIS NEC DOLOR. INTEGER SUSCIPIT HENDRERIT ERAT, IN LACINIA NISI CONSEQUAT BLANDIT.

Larken

Natura islatzeko diseinatua dagoen serif estiloko tipografia familia da, elegantea eta irakurterraza. Familia honek kurba organikoak eta errepikapen leunak lantzen ditu, harmonia handiz.

Tipografia honen erabilerarekin, bikaintasuna eta naturaltasuna transmititzen dira.

ABCDEFGHIJ
KLMNOPQR
STUVWXYZ
123456789
&!?/\+=_-:;()

LOREM IPSUM DOLOR SIT AMET, CONSECTETUR ADIPISCING ELIT. ETIAM DIAM EROS, BIBENDUM ET IACULIS VEL, FACILISIS NEC DOLOR. INTEGER SUSCIPIT HENDRERIT ERAT, IN LACINIA NISI CONSEQUAT BLANDIT.

ARGAZKI LENGOAIA

05.

ARGAZKI LENGOAIA

Erabiltzen ditugun logotipo, tipografia eta koloreez gain, garrantzitsua da argazkiei ere gure ukitua ematea. Modu honetan, marka esperientzia osatuago bat lortuko dugu, eta hartzaileari gure irudi koherente eta sendoago bat iritsiko zaio.

Argazki estiloa:


• Argazki mota "naturalak" bilatuko ditugu, poserik gabeak: bertakoa den bezala eta zintzotasunez erakutsiko dutenak.

• Argazki hauei retoke minimoa emango diegu: ez ditugu kolore aldetik gehiegi saturatuko, eta ez diegu distira edo kontraste gehegirik emango.












BESTE ERABILERAK: LOGOTIPOA ARGAZKIEN GAINEAN

Gure logotipoa (bertsio normala edo trinkoa) argazkiren baten gainean aplikatu nahi izanez gero, kolore gamako tonoren bat erabiliko dugu. Posible bada, aukeratutako kolorea fondoko argazkiaren gainean modu egokian ikusiko dela egiaztatuko dugu.









BESTE ERABILERAK: ISOTIPOA

Logotipoa argazkien gainean


Isotipoa argazkien gainean aplikatzen dugunean, beti gamako koloreren bat erabili beharko dugu, posible bada fondoko argazkiaren gainean kontraste handiena egingo duena, modu egokian ikus dadin.



Argazkia isotipoen barruan

Aurkako efektua ere erabil dezakegu, eta argazkia isotipoaren barruan sartuz. Aurreko errekurtsoekin bezala, fondoko kolorearekin kontrastea egingo duen argazki bat aukeratuko dugu.







BESTE MARKEKIN ELKARBIZITZA

06.

Beste markekin elkarbizitza

Tolosaldea logotipoa beste logotipoekin batera aplikatu behar dugunean, hauen tamaina eta posizioen inguruko irizpide batzuk jarraituko ditugu.



Gure logoarekin espazioa partekatuko duten beste logoek **Tolosaldea** logoaren altuera berdina izango dute, eta altuera honek markatzen duen distantzia mantenduko dute batak bestearekin.

Azpimarkak

Tolosaldeko marka turistikoak ez du azpimarkarik izango, beraz, bere komunikazioko oinarri guztietan logotipoa erabiliko dugu, prestatu diren bertsio guztien artean egokiena dena aukeratu ondoren.

Hala ere, eta horretarako azpimarka konkreturik erabiliko ez den arren, *Gastronomia* alorreko komunikazio oinarrietan marroi koloreari protagonismo berezia emango zaio.

Pantone 4635 C
RGB:
147 / 96 / 55
CMYK:
31 / 58 / 78 / 29
HEX:
#936037

Tolosaldeko
Turismo Bulegoa
Plaza zaharra
20400 Tolosa

943 69 74 13
tour@tolosaldea.eus

TOLO
SALDEA

www.tolosaldea.*eus*